

## AKTA

### UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

**Eguna:** 2025/03/26

**Ordua:** 18:00-ak

**Tokia:** Udaletxeko Areto Nagusian

**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Joana Mendiboure

**Zinegotziak:**

#### EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza  
Olaia Lasa Olaziregi  
Ibon Mitxelena Fernandez  
Nora Velez del Burgo Zalakain  
Jexux Olaziregi Bagües  
Edorta Fernandez Etxepetaleku  
Oihana Irastorza Gonzalez  
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi  
Ekain Susperregi Ibarguren  
Jon Albisu Mendiburu  
Ibintza Iragorri Iriarte

#### EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona  
Rafael Bergaretxe Urdampilleta  
Maitane Larruskain Agirre

#### Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

#### Kontu-hartzailea:

M<sup>a</sup> Jesus Otaegi Irureta

#### Ezin etorria adierazi dute:

Iñaki Arbelaitz Mitxelena

#### AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. EAJ/PNV aurkeztutako mozioa: Haur eskolaren inguruko gaia udal osoko bilkuran aztertzeo mozioa ez zen onartu.
3. Udalerriko hiri-garbiketako eta udal-hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua emateko eta horretarako beharrezkoan den kamioia errentamendu erregimenean hornitzeko kontratua onartu zen.
4. Construcciones Lantegui S.Aren izenean sortutako 2024/02 epeko ura- estolderiaren ordainagiria ezeztatzea eta Urkiondo Ekolur S.Lri ordainagiria berria sortzea erabaki zen.
5. Artikutzako bidea 4, Txabola (07/046 Iursaila), Jose M<sup>a</sup> Tellechearen ordainagiria ezeztatu eta M<sup>a</sup> Luisa Oiartzabal ordainagiria berria sortzea onartu zen.

6. ABB Niessen enpresan egindako ur kontsumoa.
7. Coprop Mendiburu 2ren izenean atariko obra egiteko baimenari lotutako zerga eta petxaren bikoitztakoa kitapenak baliogabetzea. (2025ER100001)
8. ZINUR GAIN SLren izenean sortutko Landalurreko Ondasun Higiezinen zergaren 427820 B ordainagiriak baliogabetzea. (2025ER130004)
9. 973/2024 protokolo zenbakia duen gainbalioaren berrikuspena eta badagokio, diru itzulketa (2024ER110296)
10. Intzensoro bidea 1 etxea eta lurrei dagokion OHZko 2022, 2023 eta 2024, urteetako ordainagirien berrikuspena eta badagokio, diru itzulketa (2025ER130005)
11. M<sup>a</sup> Concepción Pampliegaren izenean sortutako uta-estolderiaren 2024/02 eta 2024/03 ordainagirien berrikuspena eta badagokio, diru itzulketa (2025ER070003)
12. Talaia poligonoa 6, 1. solairuan dagoen Ishdara yoga eta pilates zentroari dagokion ura-estolderiaren 2023/03 epeko ordainagiriaren berrikuspena (2025ER070002)
13. 902/2024 Protokolo zenbakia duen gainbalioaren berrikuspena eta badagokio, diru itzulketa (2024ER110263)
14. Kreditu aldaketaren onarpena. Kreditu Gehigarriak (2025KH020002)
15. Bidaiaiak auto-taxiz garraiatzeko zerbitzuaren 2025. ekitaldiko hiri tarifen onarpena. (2024ID410002)
16. Udal barruko I. berdintasun planaren onarpena (2024BD050001)
17. Oiartzungo udal araubideko etxebizitza tasatuak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (2025ID340002)
18. Haurtzaro Ikastolako Urmendi aparkalekuaren sarreraren konponketa lanak Onura Publikokoak Izendatzea. (2024HI380089)
19. Beste organoen jardueraren jarraipena egin zen.
20. Ez zen eskari-galderarik egon.

## Esan-eginak eta erabakiak

-I-

### AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA

2025eko otsailak 26ean egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren eta martxoak 6ean egindako ez ohiko bilkuraren aktak onartu ziren aho batez, aldeko 15 botorekin (EHBildu 12, EAJ/PNV 3)

-II-

### EAJ/PNV AURKEZTUTAKO MOZIOA: HAUR ESKOLAREN INGURUKO GAIA UDAL OSOKO BILKURAN AZTERTZEKO MOZIOA.

Janire Mitxelena Lekuona andereak, EAJ/PNV partiduaren izenean ondorengoa irakurtzen du:

*“2022ko apirilaren 7an, Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Akordioa sinatu zuen, eta une horretako Legebiltzarraren %93ak babestu zuen. Akordio horretan, Haurreskolen Partzuergoaren aldeko apustua egiten da, eta haurreskolen zerbitzua unibertsala eta doakoa izan behar dela ezartzen da. Horren harira, 33. konpromisoan honako hau jasotzen da:*

***“Haurreskolen Partzuergoa indartzea, eskaintza unibertsaleko, kalitateko eta doako zerbitzu publiko bihurtuz.”***

*2022/2023 ikasturteetik aurrera, Haurreskolen Partzuergoak eskaintzen duen zerbitzua guztiz doakoa da erabiltzaileentzat. Zerbitzuaren unibertsalizazioak eskaera handitzea ekarri du, eta, ondorioz, Haurreskolen Partzuergoa zabalkunde fasean dago, plaza berriak sortzen ari baita.*

*Gaur egun, EAEko herri gehienetan Haurreskolen Partzuergoa modu orokortuan zabalduta badago ere, oraindik badira hainbat udal haur eskola, non zerbitzua Udalek kudeatzen duten. Horien artean dago Oiartzungo Haur Eskola.*

*Oiartzungo Haur Eskola Haurreskolen Partzuergoan sartzea aukera bat da, herriari hainbat onura ekar diezazkiokeena:*

**1. Herritarrentzako doako zerbitzua bermatuko litzateke.** Zerbitzu publikoa, kalitatezkoa eta doakoa izango litzateke, familientzat onura nabarmena ekarriz. Gaur egun, Oiartzungo Haur Eskolako erabiltzaileek kuotak ordaindu behar dituzte, eta Haurreskolen Partzuergoan sartzeak kostu hori ezabatuko luke.

**2. Udalaren aurrekontuari dagokionez, ekonomikoki mesedegarria litzateke.** Oiartzungo Udalak diru kopuru handi bat bideratzen du haur eskolaren mantentzera. Haurreskolen Partzuergoan sartzeak gastu hori murriztuko luke, eta Udalak baliabide horiek beste behar batzuetara bideratu ahal izango lituzke, hala nola hezkuntza, kultura edo gizarte-ongizatera.

**3. Zerbitzua eskaintzen duten langileen eskubideak errespetatzea.** Haur Eskolako langileek, borondatea baldin badute, Haurreskolen Partzuergoan sartzeko aukera izan lezakete, euren lanbaldintzak ahalik eta gehien errespetatzu.

*Hori guztia kontuan hartuta, Oiartzungo Udalbatzak honako hau erabakitzentzu:*

**1. Oiartzungo Udalbatzaren borondatea da Udalak gaur egun eskaintzen duen Haur Eskola zerbitzua Haurreskolen Partzuergoan integratzea.**

**2. Horretarako, Udal Gobernuari eskatzen zaio integrazio hori gauzatzeko beharrezkoak diren tramite guztiak martxan jar ditzala, Hezkuntza Sailarekin eta Haurreskolen Partzuergoarekin elkarlanean prozesua aurrera eramateko.”**



Irakurketa amaitu ondoren, gai hau jorratzeak duen zailtasuna aipatzen du eta azpimarratzen du beraiek partidu bezala ez dutela inolaz ere zalantzan jartzen gaur egun zerbitzuaren funtzionamendua jakitun dira zerbitzu on bat ematen dela eta beti horrela jaso izan dutela.

Bestalde, gai hau mahi gainean dagoenez, Udal osoko batzar honetara ekartzeko beharra ikusi dute, irakurketan aipatu duen bezala 2026-27 ikasturtekin aurrera, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza galdu o egingo direla ez bada erabaki bat hartzen, horrek esan nahi du udalak bere gain hartu beharko duela zerbitzua edo beste bide batzuei ekiteko erabakia hartu beharko dela.

Azkeneko, azpimarratu nahi dute beraientzat gai honetan doakotasunak eta unibertsaltasunak duten garrantzia.

Joana Mendiboure alkatek hartzen du hitza. Lehenik eta behin, harriduraz jaso duten mozio bat dela adierazten du.

Bigarrenik, mozio baten nondik norakoa zein den azaltzen du, normalean mozio bat aurkezten denean, gai baten inguruko posizionamendua zein den adieraztea du helburu eta kasu honetan haur eskolaren gaia, lanketa momentua dagoela dio alkateak. Posizionamenduari dagokionez, lehendik Udal Osoko batzarretan aukera asko eduki dituzte hainbat partiduk beren aldarrikapenak egiteko, izan ere urtero aurrekontuak erabakitzeko momentuan, Udalpartzuergoari egingo zaizkion ekarpenak zehazten direnean aho batez onartu izan den erabakia dela dio.

Beraz, ez dute ulertzen orain arteko EAJ/PNV partiduaren posizionamendua aldekoa izan bada, zergatik aurkeztu den mozio hau. Ez du zalantzan jartzen gaia lantzen jarraitu behar dela eta horretan ari direla adierazten du, Udal Osoko batzarrean landu beharreko gaia dela eta momentua iristen denean bertan landua izango dela aipatzen du.

Orain prozesuan dagoen gaia denez, hau amaitzean hartuko dira erabakiak.

Partidua kontziente da dirulaguntzak etengo direla, baina EH Bilduk Eusko Jaurlaritzari eskatuta laguntha hauek urte betez luzatuko direla dio.

Bestalde, Udal Osoko Batzarrean aho batez onartuta, badira bi urte jada kuotarik ez dela ordaintzen Partzuegoak eskaintzen duen zerbitzuarengatik eta hogeitahamar urteetan oso balorazio ona jaso duen zerbitzua dela adierazten du. Familia gehienek beraien seme-alabak Partzuergoko hiru urtetako gelan matrikulatzea erabakitzentzat dutela nahiz gero jakin Elizalden matrikulatuko dituztela eta horrek demostratzen du 0-3 zikloak zein garrantzia handia daukan eta herri honetan oso sakon landu den proiektua izan dela beraz, ahalik eta gehien defendituko duten gai bat izango dela adierazten du.

Horretaz gain, balio eta balore asko dituen projektua dela dio eta horietatik hiru jartzen ditu erdigunean. Lehena, bertako hezitzaleek egiten duten lana, haurraren hurbileko jarraipena, euskara, herriaren ezagutza, herriko ohiturak eta tradizioak etab. Luze bat, inork ukatuko ez dituena.

Bigarrena, garrantzi handikoa dena, bertako sukaldea eta funtzionamendua, hezkuntzaren parte den momentu hori ere eta horretaz gain, haurrak ez direla tuperrarekin joaten, horrek esan nahi du ez dela bereizketarik egoten beraien artean otorduetako momentuetan.

Azkenik, bereziki kontutan eduki beharrekoa, udalaren izaera publikoa da eta hau hasieratik izan den zerbitzu publiko bat dela azpimarratu nahi du.

Lanketan dagoen gai bat da eta beraz, hau tonu lasai eta eroso batean egitea proposatzen dute. Baino EAJ/PNV-ek mozio hau aurkeztu duenez, iruditzen zaie ez ote duten zuzenean herriaren beharraren eta neurritara sortutako zerbitzu bat zalantzan jartzen, ez ote diren 0-3 haurren eta beraien familiei bizkarra eman da pentsatzen eta udal eskumenak alde batera ez ote diren uzten ari.

Hortaz, alkateak dio, aipatutako guztia kontutan hartuta ez dela azken erabakiak plazaratzeko momentua.

Janire Mitxelena Lekuonak hartzetan du hitza.

Janirek adierazten du, inongo momentuan ez dutela zalantzan jarri udalak duen posizioa, EAJ/PNV-k partidu bezala aurrekontuetan alde egin dutela zerbitzuarekin ados eta bereziki ona delako iruditzen zaielako. Pedagogiari dagokionez, 0-3 urteak garrantzitsuak direla aipatzen du.

Aldiz, aipatzen du Udalak eta Eusko Jaurlaritzarekin akordio bat duela mahi gainean eta akordio horren nondik norakoa eta gaur egun udalaren posizioa zein den jakin nahi dutela dio.

Azkenik, nabarmendu nahi du, beraiek ez dutela zalantzan jartzen partzuergoko langileek burutzen dituzten lanak, ziur daude lan fina egiten dutela, baina Partzuergoaren nondik norako landu beharreko gaia dela dio.

Guzti hau aipatu ondoren bozketara pasa dira:

Bozketa:

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	3	EAJ/PNV
<b>Aurka</b>	12	EH Bildu
<b>Abstentzia</b>		

-III-

### UDALERRIKO HIRI-GARBIKETAKO ETA UDAL-HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOKO ZERBITZUA EMATEKO ETA HORRETARAKO BEHARREZKOA DEN KAMIOIA ERRENTAMENDU ERREGIMENEAN HORNITZEKO KONTRATUA

Alkateak kontratuaren ezaugarri nagusiak aipatzen ditu. Lehenik, xedea Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta udal-hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua ematea eta horretarako beharrezko den kamioia errentamendu erregimenean hornitzea, finantza-errentamenduan hain zuzen, amaieran erosteko aukerarekin dela dio.

Mendi eta ingurumen sailak daraman zerbitzua dela eta honen aurrekontua kontratuaren iraupen osorako da eta kopurua 8.000.865,40 eurokoa, gehi BEZari dagozkion 825.546 euro, denera 8.826.411,40 eurokoa da. Honela izango litzateke banaketa. Alde batetik, Hiri-garbiketako eta udal-hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua: 7.769.415,75 euro, gehi %10eko BEZari dagozkion 776.941,57 euro, guztira 8.546.357,32 euro (BEZA barne) eta bestetik, Kamioiaren hornidura, finantza-errentamendu erregimenean, amaieran erosteko aukerarekin: 231.449,65 euro, gehi %21eko BEZari dagozkion 48.604,43 euro, guztira 280.054,08 euro (BEZA barne).

Kontratuak bost urteko iraupena izango duela aipatzen du eta hornidura entregatzeko epea 10 hilabetekoa izango dela dio.

Janire Mitxelena Lekuona andereak hitza hartzetan du. Atez atezko sistemarekin duten desadostasuna adierazten du eta aldarrikatu nahi dute badirela beste formula ekonomiko eta eraginkorragoak, bereziki herriaren pribatasuna errespetatzen dutenak. Eskura duten dokumentazioa aztertu ondoren, kontratuaren zenbait gabezia eta alderdi kezkagarriak identifikatu dituztela dio.

Alde batetik, kontratuak atez ateko sistema betikotzen duela beste formula batzuk aztertu beharrean, dokumentu teknikoan baiezatzen da hondakinen bilketa atez ateko sistemarekin izango dela eta horren harira beraien ustetan badira sistema erraz eta merkeago batzuk aintzat hartu beharko liratekeenak.

Sistema eraginkorrago batera aurrera pausoa egin beharrean, arazoak sortzen dituen eredu batean jarraitzen dela dio.

Bestalde, plastiko eta paperetan rafiazko poltsen erabilerak zalantzak sortzen dizkie, iruditzen zaie hori ez dela atez ateko sisteman dauden arazoen konponbidea eta aldarrikatzen dute edukiontzia jartzea askoz soluzio, higienikoagoa, eraginkorragoa eta eskuragarriagoa delako.

Azkenik, beraiek aipatzen duten sistema hobarietan oinarriturako izango litzateke, gaur egun Oiartzunen aplikatzen diren hobariak konpostajea egiten dutenentzat eta baliabide murriztuak dituzten familientzat bakarrik direla eta hori aldatzeko eta behar bezala birziklatzen dutenak saritzeko beraiek aipatutako sistema aplikatzea izango litzateke konponbidea. Aipatutakoa aztertu beharreko irizpideak direla dio eta momenturik aproposena beraiek proposatzen duten batzordea egitea dela dio.

Ez dute ondo ikusten bost urtetan 8,8 milioi eurotako gastu handi bati aurre egitea, azterlan konparatiborik egin gabe. Horretaz gain, leesing bidez erosi nahi den kamioiak, hau atez atezko sistemara egokituta egongo dena, hondakin bilketa baldintza dezakeela dio.

Beraz, kontratuaren bideragarritasun ekonomikoa behar bezala ebalutzeko beharrezkotzat jotzen dute alternatibak aztertzea eta kostuak beste eredu batzuekin alderatuko dituen batzorde espezifiko bat sortzea. Aipatu urrian egindako Udal Osoko bilkuran EH Bilduk aipatu zuela batzorde espezifiko honen sorrera, baina orain arte ez dela alakorik suertatu dio.

Horiek horrela, herritarren onura aintzat jotzat, ezinbestekoa da gabezia argiak dituen sistema batekin ez jarraitzea, beraz, sistema hau alde batera uztea eta beste planteamendu bat sortzea proposatzen dute.

Olaia Lasa Olaziregik hartzen du hitza.

Beste formula baten inguruan ari direla dio eta formula hori zein den jakin nahiko luketela dio. Herriz herri begiratu ez gero, birziklatzeko tasak aztertu ondoren ikusten da alde handia dagoela atez ateko sistema duten herriak eta sistema hori ez dutenen artean, datuak alderatu ez gero oso datu erakusleak dira sistema bakoitzak lortzen dituen datuetan.

Rafiazko poltsei dagokionez, proba pilotu bat dela dio eta bertatik atera dituztela ondorioak eta aipatzen du gauz batzuk aldekoak eta beste batzuk kontrakoak izan direla, baina hori dela proba pilotuen helburu. Ondo funtzionatu ez dutenei konponbidea bilatzen ari direla eta ondo funtzionatu dutenekin aurrera egitea erabaki dutela, balorazio positiboa egin dutelako.

Hasiera batean, aldaketa guzien aurrean herritarrak kexu izaten dira, baina gerora funtzionamendu egokia dela adierazi dute eta probaz kanpo hainbat herritar hurbildu direla ea beraiek ere rafiazko poltsak erabiltzeko aukerarik izango luketen galdezka. Beraz, ikusirik onura asko ekar ditzakeen sistema dela aurrera egitea erabaki dutela dio.

Bestalde, lehen EAJ/PNV partiduko bozeramaileak aipatu bezala, hobarien inguruan Europar Batasunetik datorren legea aplikatze aldera, behar bezala birziklatzen dutenei hobariak aplikatu ahal izateko hau dela sistemarik aproposena dio Olaia Olaziregik.

Azpimarratu nahi du, atez ateko sistema ez dagoen beste herri bateko pertsona batekin gaia komentatuz, haien sistema desberdin asko aplikatzen saiatu direla ontziak itxi, txartelak jarri mila sistema asmatzen sortzez besteko tasa aplikatu behar denerako, argi dagoenean sortzez besteko tasa horretara iristeko biderik errazena eta egokiena atez ateko sistema dela horiek horrela, sistema horri eutsiko diola partiduak.



Sistemaren kostuari dagokionez, beste herritako tasekin alderatuta ez dagoela ezberdintasun handirik aipaten du, horrek sistemaren kostua ez dagoela lekuz kanpo adierazten du.

Batzordeari dagokionez, EH Bildu partidua ados dago batzordea sortzeko, baina berriz dio ez dutela atez ateko sistema aldatzeko asmorik.

Janire Mitxelena Lekuonak, batzordea sortzen den momentuan alternatibak eta proposamenak alderatu dituztela gehitzen du.

Alkateak aipaten du, batzordea sortzeko asmoa zuten momentuan argitu zutela ez zeukatela atez ateko sistema aldatzeko asmorik eta batzordea sortu ez gero helburu bezala, atez ateko sistema edo birziklatzeko tasak hobetzeko proposamenak jasotzea izango dela. Azpimarratzen du Europar Batasunetik datorren legea betetzeko sistemarik egokiena duela Oiartzungo udalerriak eta beraz, hori aprobetxatuz aurrera egitea eta ausardiaz eta anbizioz jarraitzeko esaten du.

Idazkariak hitza hartzen du. Legeak esan bezala hogeitahamar egunez alegazioak aurkezteko epea irekita egongo delaa eta ondo bidean maiatzeko Udal Osoko batzarrean esleitzeko aukera egongo dela adierazten du.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Bereziak Batzorde informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, hartu du honako:

#### **AKORDIOA:**

**Lehena.-** Oiartzungo udalerrian hiri-garbiketako eta udal-hondakinen bilketa eta garraioko zerbitzua emateko eta horretarako beharrezkoia den kamioia errentamendu erregimenean hornitzeko kontrataziorako espedientea onartzea, jarraituko den prozedura irekia izango delarik, eta azken honi hasiera ematea. Halaber, onartzea kontratua araupetzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta baita gastua ere.

Gastua aurrekontuko honako partiden kontura izango da:

- 1 0211.227.163.00.01 2025 (5394)
- 1 0211.227.162.10.04 2025 (5389)

**Bigarrena.-** Kontratazio mahaia Oiartzungo Udaleko Kontratazio Mahai iraunkorra da, honela osatua dagoena:

Lehendakaria	<b>Agustin Lekuona Irastorza</b>	2. Alkateordea	Ordezkoa	<b>Garazi Urdampilleta Astibia</b>	Alkateordea
Bokala	<b>Janire Michelena Lecuona</b>	Zinegotzia	Ordezkoa	<b>Rafael Bergaretxe Urdanilleta</b>	Zinegotzia
Bokala	<b>Xabier de la Mota Vazquez</b>	Idazkaria	Ordezkoa	<b>Oihane Mallagaray Revilla</b>	Giza Baliabideetako teknikaria
Bokala	<b>Maria Jesus Otaegi Irureta</b>	Kontu-hartzalea	Ordezkoa	<b>Elixabete Jauregi Imaz</b>	Diruzaina
Bokala	<b>Aroia</b>	Kontratazioko	Ordezkoa	<b>Oihane</b>	Giza

	<b>Altuna Ibarguren</b>	teknikaria		<b>Mallagaray Revilla</b>	Baliabideetako teknikaria
Bokala	<b>Amagoia Marcos Saizar</b>	Arkitekto teknikoa	Ordezkaoa	<b>Asier Telleria Iztueta</b>	Arkitekto teknikoa
Idazkaria	<b>Aroia Altuna Ibarguren</b>	Kontratazioko teknikaria	Ordezkaoa	<b>Xabier de la Mota Vazquez</b>	Idazkaria

**Hirugarrena.**- Kontratuaren arduraduna izendatzea udal Mendi eta Ingurumen teknikaria.

**Laugarrenea.**- Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 63. artikuluak agintzen dituen eta kontratu honen lizitazio prozedura burutzeko beharrezkoak diren argitalpenak egitea.

**Bostgarrenea.**- Kontratu honen iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita 30 egun naturaleko epea ematea proposamenak aurkezteko.

Bozketa:

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	12	EH Bildu
<b>Aurka</b>	3	EAJ/PNV
<b>Abstentzia</b>		

-IV-

CONSTRUCCIONES LANTEGUI S.AREN IZENEAN SORTUTAKO 2024/02 EPEKO URA-ESTOLDERIAREN ORDAINAGIRIA EZEZTATZEA ETA URKIONDO EKOLUR S.LRI ORDAINAGIRI BERRIA SORTZEA

Alkateak adierazten du, Mugarriegi kalea 1 pabilioia eraiki bitartean kontadorea CONSTRUCCIONES LANTEGUI SAren izenean zegoela eta obra amaitu ostean, kontadorea pabilioiaren nagusia den URKIONDO EKOLUR SLren izenean jartzea eta oker sortutako 2024/02 epeko ura-estolderiaren ordainagiria baliogabetzea eskatzen dutela.

Mugarriegi kalea 1 pabilioiaren nagusia URKIONDO EKOLUR SL den arren, 2024/02 epeko ura-estolderiaren ordainagiria, pabilioia eraiki zuen CONSTRUCCIONES LANTEGUI SAren izenean sortu dela.

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziengatik batzorde informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuraren emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

#### AKORDIOA

**Bakarra.**- Eskualdaketa jasotzea, CONSTRUCCIONES LANTEGUI SAren izenean dagoen 2024/02 epeko ura-estolderiaren ordainagiria baliogabetzea eta jabe zuzenaren izenean, URKIONDO EKOLUR SLren izenean, ordezko berria sortzea proposatzen da.



### Baliogabetu beharreko ordain-agiria:

Izena : CONSTRUCCIONES LANTEGUI SA IFZ/PAS: A20159380  
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua Ego. Ep Zenbatekoa

-----  
3 2024 02 1055 0 URA-ESTOL-MUGARRIEGI KALEA SUSE E0 87,82

### Ordezko ordainagiria:

Epea: 2024/02

Irakurketa berria: 56 Aurreko irakurketa: 53 Kontsumoa: 3

Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
				t. mugik konts. denera
<b>Ura-est</b>	70,15	3,20	3	9,60 79,75
<b>BEZ</b>	0,1			7,98
<b>Kanona</b>		0,03	3	0,09 0,09
		<b>Guztira €</b>		<b>87,82</b>

-V-

ARTIKUTZAKO BIDEA 4, TXABOLA (07/046 LURSAILA), JOSE M<sup>a</sup> TELLECHEAREN ORDAINAGIRIA EZEZTATU ETA M<sup>a</sup> LUISA OIARTZABALI ORDAINAGIRI BERRIA SORTZEA

Alkateak aipatzen du, Artikutzako bidea 4, Txabola (07/046 lursaila) 2024eko abenduaren 10era arte Agor Pagadizabal Jose Marirena zen arren 2024/02 epeko ura-estolderiaren ordainagiria Tellechea Echeveste Jose Mariren izenean sortu dela.

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuraren emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

### AKORDIOA

**Bakarra.-** Artikutzako bidea 4, Txabola (07/046 lursaila) helbideari dagokion 2024/02 ordainagiria baliogabetu eta epe horretan nagusia zen Agor Oiartzabal M Luisaren (Agor Pagadizabal Jose Mariren oinordeko) izenean ordezko berria sortzea proposatzen da.

### Baliogabetu beharreko ordain-agiria:

Izena : TELLECHEA,ECHEVESTE,JOSE M IFZ/PAS: 44155794A  
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua Ego. Ep Zenbatekoa

-----  
3 2024 02 4279 0 URA-ESTOL-ARTIKUTZAKO BIDE SUSE E0 13,18

### Ordezko ordainagiria:

Agor Oiartzabal M Luisa

Epea: 2024/02

Irakurketa berria: 203 Aurreko irakurketa: 203 Kontsumoa: 0

Finkoa	Mugikorra	Denera
--------	-----------	--------

		t. mugik	konts.	denera	zatika
<b>Ura-est</b>	11,98	1,29	0	0,00	11,98
<b>BEZ</b>	0,1				1,20
<b>Kanona</b>		0,03	0	0	0,00
		<b>Guztira €</b>			<b>13,18</b>

-VI-

## ABB NIESSEN ENPRESAN EGINDAKO UR KONTSUMOA

Alkateak aipatzen du, 2024ko abenduaren 11ean, udaleko Ur zerbitzuak Aranguren poligonoko ur sarearen errebisio bat egiten ari zenean. Errebisio horretan, ABB Niessen enpresan ez ohikoa zen ur kontsumo bat zegoela ondorioztatu zela. Gaia gehiago aztertuta, enpresa honetako sute aurkako sarearen instalazioan zela ikusi zen. Enpresa bertako mantenuko teknikoei ikusitakoa azaldu zitzaien. Ondoren, beraiek enpresaren instalazioak errebisatzekotan geratu ziren.

2024ko abenduaren 12an, ABB Niessen enpresako mantenuko langileekin batera enpresa barruko instalazioak ikuskatu zituen Ur zerbitzuak eta ur kontsumoaren jatorria zein izan zen identifikatu ahal izan zuen. Ez ohiko ur kontsumo hau, enpresako saneamenduko sarea garbi mantentzeko ezarritako deskarga automatiko batetik zetorrela ondorioztatu zen. Deskarga hauetan, sute saretik hartzen zuten ura eta enpresan barruko saneamendu sarean ur deskarga batzuk eginaz, saneamendu sarean egon daitezken pilaturiko zikinkeriak mugitza lortzen dute. Buxadurak ekidinaz. Aipaturiko egun hauetan enpresan burutzen ari ziren obra batzuren ondorioz, hauetako bat erabat irekia geratu zen.

Egunean bertan deskarga automatiko hau itxi egin zen eta teknikoei arazoa hau berriz ere ez gertatzeko neurriak hartzea eskatu zitzaien.

ABB Niessen enpresak, bere ur hartune propioa du Oiartzun ibaian eta lehen hartune honetatik hornitzen zituen lehen aipaturiko sute kontrako sarea eta deskarga automatiko hauetan. Hartunea erabiltzea utzi egin zuten eta herriko ur saretik hornitu zituzten instalazio hauetan. Ez ziren jabetu deskarga hauetan herriko ur saretik hornitzen hasi zirela eta hauetan normalean ura kontsumitzen dutela. Instalazio honek, bere kontagailu propio du herriko ur sarearekin konektaturik dagoen puntuari eta bertatik hartutako ur kontsumoa erregistratua geratu dela.

Kontagailu honek 2025eko urtarrilaren 8an, 6.211 m<sup>3</sup>tako irakurketa zuen. Aipatu behar da kontagailu hau sute aurkako instalazioaren hasierako puntuari ezarria dagoela eta suterik gertatzen ez bada irakurketa 0 m<sup>3</sup>tako izan behar duela. Ondorioz kontagailuak erakusten dituen 6.211m<sup>3</sup>ak deskarga automatikoetatik egin direla ulertzten da.

2025eko urtarrilaren 15ean, berriz ikuskatu ziren ABB Niessen enpresako instalazio hauetan eta egiaztatu ahal izan zen deskarga automatiko hauetan sute kontrako saretik deskonektatuak izan zirela eta egun, hornidurako haditik hartzen dutela ura.

Ur zerbitzutik esaten duenaren arabera, ABB Niessen enpresak bere barruko sare propioa 2023ko apirilean utzi zuela erabiltzea. Aldaketa honek sortu zuen herriko ur saretik kontsumitzen hastea. Lehen kontsumo hau hartune propioko urarekin egiten zen eta orain herriko hornidura saretik. Kontsumo hau inongo fede txarrik gabe egin da baina ura erabili egin da eta beste aldaketarik egin ezean, erabiltzen jarraituko da. Orain, ur hornidura arrunta neurteko ezarrita dagoen kontagailuak erregistratuko ditu kontsumo hauetan.

Uretako zerbitzu buruak egindako txostenaren arabera, saneamendu sarea garbitzeko erabilitako 6211 m<sup>3</sup>tako uraren kontsumoa 20 hilabeteko epean eman da, 2023an 8 hilabetetan eta 2024ean 20 hilabetetan eta hilabeteko bataz besteko kontsumoa 310,55 m<sup>3</sup>takoa da .

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuraren emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

## AKORDIOA

**Bakarra.-** Aipatutako kontsumoa oinarritura eta urtez urte dagokion udal ordenantza aplikatuz, sortuko zaizkio 2023/02 lauhilekotik 2024/03 lauhilekora (biak barne) bitarteko likidazioak non bakoitzean 1242m<sup>3</sup> kobraztuko zaizkion.

**Ordezko ordainagiriak:**

Zergaduna: ASEA BROWN BOVERI SA

Kontsumoaren helbidea: ARANGUREN POLIGONOA 6, ABB NIESSEN SA

**2023/02**

Kontsumoa: 1242m<sup>3</sup>

	Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
		t. mugik	konts.	denera	
<b>Ura-est</b>	69,11	3,15	1242	3912,30	3981,41
<b>BEZ</b>	0,1				398,14
<b>Kanona</b>		0,025	1242	31,05	31,05
		<b>Guztira €</b>			<b>4410,60</b>

**2023/03**

Kontsumoa: 1242m<sup>3</sup>

	Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
		t. mugik	konts.	denera	
<b>Ura-est</b>	69,11	3,15	1242	3912,30	3981,41
<b>BEZ</b>	0,1				398,14
<b>Kanona</b>		0,025	1242	31,05	31,05
		<b>Guztira €</b>			<b>4410,60</b>

**2024/01**

Kontsumoa: 1242m<sup>3</sup>

	Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
		t. mugik	konts.	denera	
<b>Ura-est</b>	70,15	3,20	1242	3974,40	4044,55
<b>BEZ</b>	0,1				404,46
<b>Kanona</b>		0,03	1242	37,26	37,26
		<b>Guztira €</b>			<b>4486,27</b>

**2024/02**

Kontsumoa: 1242m<sup>3</sup>

	Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
		t. mugik	konts.	denera	
<b>Ura-est</b>	70,15	3,20	1242	3974,40	4044,55
<b>BEZ</b>	0,1				404,46
<b>Kanona</b>		0,03	1242	37,26	37,26
		<b>Guztira €</b>			<b>4486,27</b>

**2024/03**

Kontsumoa: 1242m<sup>3</sup>

Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
	t. mugik	konts.	denera	
<b>Ura-est</b>	70,15	3,20	1242	3974,40
<b>BEZ</b>	0,1			404,46
<b>Kanona</b>		0,03	1242	37,26
			<b>Guztira €</b>	<b>4486,27</b>

-VII-

COPROP MENDIBURU 2REN IZENEAN ATARIKO OBRA EGITEKO BAIMENARI LOTUTAKO ZERGA ETA PETXAREN BIKOIZTUTAKO KITAPENAK BALIOGABETZEA.

Alkateak hartzen du hitza. Coprop Mendiburu 2ren izenean atariko obra egiteko baimenari lotutako zerga eta petxaren kitapenak bikoiztu egin direla dio.

Mendiburu kalea 2 atariko obra egiteagatik Coprop. Mendiburu 2 zergadunak obra baimenari lotutako zerga eta petxak ordaindu dituela.

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziengatik batzorde informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuraren emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

### AKORDIOA

**Bakarra.-** Akats baten ondorioz Udalak likidazioak bikoiztu dituenez gero, bikoiztutako ordainagiriak baliogabetzea.

Baliogabetu beharreko ordain-agiria:

Izena : COPROP MENDIBURU 2

IFZ/PAS: H20988804

O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua

Ego. Ep Zenbatekoa

37 2024 01 22	167	0 ZERGA-HIR-MENDIBURU KALEA SUSE E0	295,77
39 2024 01 22	121	0 PETXA-HIR-MENDIBURU KALEA SUSE E0	58,14

-VIII-

ZINUR GAIN SLREN IZENEAN SORTUTKO LANDALURREKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERGAREN 427820 B ORDAINAGIRIAK BALIOGABETZEA

Alkateak aipatzen du, Landalurreko Ondasun Higiezinen zergari dagokion 427820 B ordainagiria, 2022ko azaroaren 8tik aurrera, Uria Iriarte Mari Angelesen izenean dagoen arren, 2023 eta 2024ko ordainagiriak aurreko nagusiaren, ZINUR GAIN SL-ren izenean sortu direla.

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziengatik batzorde informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuraren emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:



AKORDIOA

**Bakarra.-** Landalurreko Ondasun Higiezinen zergari dagokion 2023 eta 2024ko 427820 B ordainagiria baliogabetzea (ordaindua balego itzultzea) eta zergadun zuzenaren, Uria Iriarte M Angelesen izenean ordezko zuzenak sortzea.

## Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:

Izena : ZINUR GAIN SL

IFZ/PAS: B01617596

O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua

Ego, Ep Zenbatekoak

82 2023 01	427820B 0 O.H.Z.	LANDALU	PEEM E3	62,39
82 2024 01	427820B 0 O.H.Z.	LANDALU	PNSR E0	63,97

## **Ordezko ordainagiriak :**

Sortuak.

-IX-

973/2024 PROTOKOLO ZENBAKIA DUEN GAINBALIOAREN BERRIKUSPENA ETA  
BADAGOKIO, DIRU ITZULKETA

Alkateak azaltzen du, Arritokieta Eguilegor Berrak eta Aitor Marixalar Zelaiak erdibana jabetzen zuten Zelaimusu kalea 15 pabilioia eskualdatu dutela 2024ko abenduaren 10ean. Aipatu ondasuna, 2004. urtean eskuratu zutela 192.000,00€tan. Eskualdaketa, 180.000,00€ren truke egin dutela.

Eskualdaketa honek ez du lurren balio gehikuntzarik jarri agerian, balio galera bat baizik. Hirilurren balioaren gehikuntzaren zergagatik sortutako kitapenak baliogabetzea eskatzen dutela.

Uztailaren 5eko Hirilurren Balioaren Gehikuntzen gaineko Zergari buruzko 16/1989 Foru Arauak. 1. artikuluko 3. atalean zera jasotzen du: “lurren eskualdaketa ez dira egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzean balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean.”

Arritokieta Eguilegor Berrak eta Aitor Maritxalar Zelaiak erdibana jabetzen zuten Zelaimusu kalea 15 pabilioia eskualdatu zuten 2024ko abenduaren 10ean. Eskualdaketa, 180.000,00€ren truke egin zen. Aipatu lokalak 2004. urtean eskuratu zuten eta 192.000,00€tako balioa emanez eskrituratu zen. Hortaz, eskualdaketa alderatuz, galera jartzen da agerian.

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

AKORDIOA

**Bakarra.-** Hirilurren balioaren gehikuntzaren 2024/439 eta 2024/427 zenbakia duten kitapenak baliogabetzea (ordainduak baleude itzultzea).



-X-

## INTZENSORO BIDEA 1 ETXEA ETA LURREI DAGOKION OHZKO 2022, 2023 ETA 2024, URTEETAKO ORDAINAGIRIEN BERRIKUSPENA ETA BADAGOKIO, DIRU ITZULKETA

Alkateak adierazten du, Alejandro Graciak Landalurreko Ondasun Higiezinan zergari dagokion 345240 X ordainagirian jasotzen diren lur sailak 2021eko abuztuaren 12an saldu zituen baserriarekin batera. Aipatu datatik aurrera Requejo Arias Luis Manuela izanean egon beharko lukeen arren, 2022, 2023 eta 2024ko ordainagiriak aurreko nagusiaren, Gracia Arregui Alejandren, izanean sortu direla.

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziengatik informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuraren emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

### AKORDIOA

**Bakarrak.-**Landalurreko Ondasun Higiezinan zergari dagokion 2022, 2023 eta 2024ko 345240 X ordainagiriak baliogabetzea (ordaindua baleude itzultzea) eta zergadun zuzenaren, Requejo Arias Luis Manuela izanean ordezko zuzenak sortzea.

#### Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:

Izena : GRACIA,ARREGUI,ALEJANDRO  
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua

IFZ/PAS: 15883113A

Ego. Ep Zenbatekoa

82 2022 01	345240X 0 O.H.Z. LANDALU	1	19,96
82 2023 01	345240X 0 O.H.Z. LANDALU	1	19,96
82 2024 01	345240X 0 O.H.Z. LANDALU	SUSE E0	20,45

#### Ordezko ordainagiriak :

Sortuak.

-XI-

## M<sup>a</sup> CONCEPCIÓN PAMPLIEGAREN IZENEAN SORTUTAKO UTA-ESTOLDERIAREN 2024/02 ETA 2024/03 ORDAINAGIRIEN BERRIKUSPENA ETA BADAGOKIO, DIRU ITZULKE

Alkateak azaltzen du, M Concepción Pampliega Ramajo-ren izanean sortutako 2024/02 eta 2024/03 epeetako ura-estolderiaren ordainagiriak berrikusteko eskaera egin duela gehiegizko kontsumoa jasotzen dutelako .

Ur errolden oinarrizko dokumentazioa aztertu ondoren eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, ondorioztatzen da Arizabalo bidea 2A etxeari dagozkion 2024/02 eta 2024/03 epeetako uraren ordainagiriak gehiegizko kontsumoa jasotzen dutela matxura bat dela eta.

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Bereziengatik informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuraren emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:



## AKORDIOA

**Bakarra.-** M Concepción Pampliega Ramajoren izenean dauden 2024/02 eta 2024/03 epeetako uraren ordainagiriak baliogabetzea (ordainduak baleude itzultzea) eta ordezko berriak sortzea, fogan sortutako kontsumoa eta kontadore horrek jarduera arruntean daukan bataz besteko kontsumoarekin, 162m<sup>3</sup>ko kontsumoarekin.

### Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:

Izena : PAMPLIEGA, RAMAJO, M CONCEPCION IFZ/PAS: 15924456S  
O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua Ego. Ep Zenbatekoa

3 2024 02	3734	0 URA-ESTOL-ARIZABALO BIDEA	1	449,33
3 2024 03	3759	0 URA-ESTOL-ARIZABALO BIDEA	0	568,15

### Ordezko ordainagiriak:

#### 2024/02

Kontsumoa 200m<sup>3</sup>

Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
	t. mugik	konts.	denera	
<b>Ura-est</b>	11,98	1,29	200	258,00
<b>BEZ</b>	0,1			27,00
<b>Kanona</b>		0,03	200	6
		<b>Guztira €</b>		<b>302,98</b>

#### 2024/03

Kontsumoa 200m<sup>3</sup>

Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
	t. mugik	konts.	denera	
<b>Ura-est</b>	11,98	1,29	200	258,00
<b>BEZ</b>	0,1			27,00
<b>Kanona</b>		0,03	200	6
		<b>Guztira €</b>		<b>302,98</b>

-XII-

**TALAIA POLIGONOA 6, 1. SOLAIRUAN DAGOEN ISHDARA YOGA ETA PILATES  
ZENTROARI DAGOKION URA-ESTOLDERIAREN 2023/03 EPEKO ORDAINAGIRIAREN  
BERRIKUSPENA**

Alkateak dio, ur errolden oinarrizko dokumentazioa aztertu ondoren eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, ondorioztatzen dela Talaia poligonoa 6, 01-001 helbidea duen lokalari dagokion 2023/03 epeko uraren ordain-agirian gehiegizko kontsumoa erantsi zaiola matxura bat dela eta.

Guzti hau kontutan hartuta, Diruzainaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzorde informatzaileak 2025eko martxoaren 20ean egindako bilkuraren emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako:

**AKORDIOA**

**Bakarra.-** Kizkitza Makazaga Lasak, M Cruz Amiano Jaureguiren izenean dagoen 2023/03 epeko uraren ordain-agiria baliogabetu (ordaindua balego itzultzea) eta ordezko berria sortzea, fugan sortutako kontsumoa eta kontadore horrek jarduera arruntean daukan bataz besteko kontsumoarekin, 19m<sup>3</sup>ko kontsumoarekin.

**Baliogabetu beharreko ordain-agiriak:**

Izena : AMIANO,JAUREGUI,M CRUZ

IFZ/PAS: 15879103H

O Zer Urt Ep Er. Agiria Z. Zerga Konzeptua

Ego. Ep Zenbatekoa

3 2023 03 239 0 URA-ESTOL-TALAIA POLIGONOA 1 428,52

**2023/03**

Kontsumoa 19 m<sup>3</sup>

Finkoa	Mugikorra			Denera zatika
	t. mugik	konts.	denera	
<b>Ura-est</b>	69,11	3,15	19	59,85
<b>BEZ</b>	0,1			12,90
<b>Kanona</b>		0,025	19	0,48
		<b>Guztira €</b>		<b>142,33</b>

-XIII-

902/2024 PROTOKOLO ZENBAKIA DUEN GAINBALIOAREN BERRIKUSPENA ETA  
BADAGOKIO, DIRU-ITZULKETA

Alkateak azaltzen du, 2024ko urriaren 14ean oinordetzan jaso zituen senarrarenak ziren hainbat ondasun. Eskualdaketari lotutako Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioak jaso eta ordaindu ondoren berrazterte errekurtsoa aurkezten du likidazio hauen kontra.

Iradi bidea 18 etxebizitzaren eskualdaketak sortutako kitapenaren kalkulurako metodo objektiboa erabili da, hau da, luraren balio katastralera erabiltzen duena eta eman zaion balioa 58233,16€takoa da. Balio hau ez da zuzena 53.824,37€takoa izan beharko luke.

Bidegaina kalea 22, 2A etxebizitzaren eskualdaketak sortutako kitapenaren kalkulurako metodo objektiboa erabili da.

Bidegaina kalea 24,00-1A garajearen eskualdaketak sortutako kitapenaren kalkulurako zuzeneko metoda erabili da.

Likidazioetan, eskualdaketen artean igarotako urte epeari dagokion portzentaia okerra da. Igarotako epea 17 urtekoa izanda 0,13 izan beharko luke eta ez 0,17.

7/2021 Foru Dekretu Arauak aldatu eta kitapenen lege oinarria diren eta Udal Ordenantza eta uztailaren 5eko Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 16/1989 Foru Araua espezifikoa ez dato bat Konstituzio Epaitegiaren hainbat sententziekin. Zergaren oinarria diren eskualdaketeak agirian jarritako balio gehikuntzak irrealak eta fikziozkoak dira eta ez dute zergadunaren ahalmen ekonomikoa neurten, izan ere eskualdaketak erakarritako hainbat kenkari aplikatu ezin direlako.

Iradi bidea 18 etxebizitzaren eskualdaketak sortutako kitapenaren kalkulurako metodo objektiboa erabili da, hau da, luraren balio katastralera erabiltzen duena eta eman zaion balioa 58233,16€takoa da, 2023ko urtarrilaren batean ondasunak zuena katastroan. Gerora, 2023ko uztailean, interesatuak katastroan obra zahar berriari zegokion U-4 ereduak aurkezten zuen eta honek, balio katastralera aldaketa ekarri zuen. Horrela, Iradi bidea 18 etxebizitzari 2023 urtean 53.824,37€takoa balioa katastralera dagokio. Oker sortutako 2024/394 kitapena baliogabetu eta balio zuzenak hartuz ordezko egin beharko da.

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Araua espezifikoa uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak 4. artikulan zerga oinarria nola kalkulatu jasotzen du, batetik luraren eskualdaketen, sortzapenaren unean duten balioa ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako une horretantxe dutena izango dela dio eta bestetik, egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa aipatutakoa baina txikiagoa dela, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

Erreklamatutako likidazioetan, kalkulua egiteko erabilitako metodoari dagokionez, bi metodoekin kalkulua egin ostean kitapenak sortzeko erabiltzen dena zergadunarentzako onuragarriena dela esan behar da. Horrela, Bidegaina kalea 22, 02-A ondasunaren eskualdaketan kalkulu objektiboa aukeratu da eta Bidegaina kalea 24, 00-1A ondasunaren eskualdaketan zuzeneko kalkulua.

Iradi bidea 18 etxebizitzaren eskualdaketak sortutako kitapenaren kalkulurako metodo objektiboa erabili da, hau da, luraren balio katastralean oinarritzen dena eta eman zaion balioa 58233,16€takoa da, 2023ko urtarrilaren batean ondasunak zuena katastroan. Gerora, 2023ko uztailean, interesatuak katastroan obra zahar berriari zegokion U-4 ereduak aurkezten zuen eta honek, balio katastralera aldaketa ekarri zuen. Horrela, Iradi bidea 18 etxebizitzari 2023 urtean 53.824,37€takoa balioa katastralera dagokio. Oker sortutako 2024/394 kitapena baliogabetu eta balio zuzenak hartuz ordezko egin beharko da, beti ere zergadunarentzako onuragarriena den kalkulua erabiliz.

Sorreraldiari dagokion koefizienteari buruz, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Arau espezifiko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak bere 4. artikuluan, zerga-oinarria eta kuota arautzen ditu. Artikulu horrek honako idazkera hau izango du:

"4.1 artikulua. Zerga honen zerga oinarria lurren balio gehikuntza da, hain zuen ere, sortzapenaren unean agerian jarri eta gehienez ere hogei urteko epean izandakoa. Haren zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da, artikulu honen 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe: artikulu horren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera sortzapenaren unean lurraldi kalkulatu zaion balioa bider 3. apartatuaren arabera sorreraldiari dagokion koefizientea.

4.3 Balio gehikuntzaren sorreraldia gehikuntza hori agerian jartzeko igarotako urte kopurua izango da.

Sortzapenaren unean lurralde duen balioari (urreko apartatuetan xedatu da nola kalkulatu balio hori) udalak onartzen duen koefizientea aplikatuko zaio balio gehikuntzaren sorreraldia kontuan hartuta, eta koefiziente horrek ezingo ditu inoiz muga hauek gainditu:"

Jarraian jasotzen ditu indarrean dauden aipatu gehieneko koefizienteak. Eta ondoren modu honetan jarraitzen du

“Gehieneko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira foru arau bidez, eta eguneratze hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru arauetan ere egin ahal izango da.

Aurreko paragrafoan aipatutako eguneratzeak berekin badakar ordenantza fiskalean onartutako koefizienteetako bat legez ezarritako gehieneko berria baino handia izatea, azken hori zuzenean aplikatuko da, soberakina zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.”

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontuak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauak ezartzen duenez, 17 urteko sorreraldian aplikatu beharreko koefizientea 0,17 da. Horrekin bat, 2023rako Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen udal-ordenantzak 0,17ean finkatzen du koefiziente hori.

Maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauak, 2024rako zenbait zerga aldaketa onartzen dituenak, 11. artikuluko bigarren paragrafoan lurralde duen balioari aplikatu beharreko koefizienteen gehieneko zenbatekoak aldatzen ditu eta Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean indarrean sartuko dela dio (2024-05-17ko GAO). Beraz, 2024ko maiatzaren 18tik aurrera sartuko da indarrean 17 urteko sorreraldian aplikatu beharreko koefiziente berria, 0,13koa alegia.

Oskar Hilario Maleta Sansineneak erreklamatutako likidazioetan, sortzapen data 2023ko azaroaren 20a da, eta data horretan, 17 urteko sorreraldian aplikatu beharreko indarreko koefizientea 0,17 zen. Hortaz kitapenak zuzenak dira.

Azkenik, Oskar Hilario Maleta Sansinenearen esanetan, 7/2021 Foru Dekretu Arauak aldatu eta kitapenen lege oinarria diren eta Udal Ordenantza eta uztailaren 5eko Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 16/1989 Foru Arau espezifiko ez dato bat Konstituzio Epaitegiaren hainbat sententziekin. Zergaren oinarria diren eskualdaketeak agirian jarritako balio gehikuntzak irrealak eta fikziozkoak dira eta ez dute zergadunaren ahalmen ekonomikoa neurten, izan ere eskualdaketa erakarritako hainbat kenkarri aplikatu ezin direlako.

2021eko urriaren 26ko Konstituzio Auzitegiaren 182/2021 sententziak zerga bera deuseztatu baldin bazuen ere, egun hainbat aldaketa barneratu ondoren Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen 16/1989 Foru Arau espezifiko, uztailaren 5ekoa dago indarrean.



ORDAINSARIEN GAINEKO POLITIKA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalzaingo lanpostuen balorazioa egin da eta soldatak egokitu dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dago lanpostuen baloraziorik.</li> <li>UDALHITZ sistemana, A1 eta A2 azpitaldean gehienbat emakumeek edo gizonek betetzen dituzten lanpostuetan dauden desberdintasunak genero-alborapena egon daitekeela sumatzen da.</li> <li>Soldata-osagarriak lanpostuei esleitzeko irizpideak berrikusi behar dira.</li> <li>Datuak analisiak nabarmendu du soldata politika genero ikuspegitik aztertu behar dela, nahiz eta plantillaren gehiengoen pertzepzioa ona izan.</li> </ul>


KATEGORIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Orokorrean, kontziliazio- eta malgutasun-neurriekin gogobetetasun maila altua da emakumeen eta gizonen artean.</li> <li>Nahiz eta 15 puntuko aldea izan, emakumeen %67k eta gizonen %82k lanaren barneko antolaketak lana eta bizitza pertsonala uztartzen laguntzen duela uste dute.</li> <li>Emakume eta gizon gehienek, %77k eta %98k, uste dute enplegua eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriez baliatzeak ez dakarrela aukera profesionalak galtzea. Hala ere, emakumeen %21k du enplegua eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriez baliatzeak aukera profesionalak galtzea dakarrenaren pertzepzioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontziliazioa ulertzeko modu desberdinak daude plantillan, eta horrek batzuetan gaizki ulertzera eramatzen du eta gatazka-iturri izan daiteke.</li> <li>Lanpostu batzuek ezin dute ordutegi-malgutasunik izan, eta lanpostu horietan daudenek (batez ere emakumeek) kontziliazio-arazoei aurre egin behar diente, gainera arazo horiei ez zaie irtenbiderik eman.</li> <li>Ez dago telelana egiteko aukerarik.</li> <li>Langile guztiak ez dituzte udalean kontziliaziorako dauden neurriak ezagutzen, ezta haien eskubideak ere.</li> </ul>
<b>ARRISCU PSIKOSOZIALAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokolo bat dago.</li> <li>2023 eta 2024 urteetan plantilla osoak jaso du jazarpenari buruzko prestakuntza</li> <li>Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena jasoz gero langile gehienek jakingo lukete nola jokatu.</li> <li>Emakumeen %83k eta gizonen %64k uste dute udalean txiste eta iruzkin matxistak ez direla ohikoak.</li> <li>Lanarekin duten motibazioari emandako batez besteko puntuazioa: 7,85 (emakumeak) eta 7,61 (gizonak).</li> <li>Emakumeen %73k eta gizonen %82k uste du egonkortasuna duela bere lanpostuan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>20 emakume eta 3 gizon sexua dela eta baztertuak sentitu izan dira udalean.</li> <li>Herritarren parte batek ez du onartzen plantillako emakumeen agintea.</li> <li>8 emakumek eta 2 gizonek sexu jazarpena jaso dutela adierazten dute (horietatik 5 eta 1 azkeneko 3 urteetan); 9 emakumek eta 3 gizonek, enpresan sexu-jazarpen kasuren bat ezagutu dutela adierazi dute (horietatik 5 eta 3 azkeneko 3 urteetan).</li> <li>11 emakumek eta gizon 1ek sexuan oinarritutako jazarpena jaso dutela adierazi dute (horietatik 8 eta 1 azkeneko 3 urteetan) eta, beste 12 emakumek eta 2 gizonek, mota honetako jazarpena jaso izan duen norbait ezagutzen dutela, esan dute (horietatik 8 eta 2 azkeneko 3 urteetan).</li> <li>Ez da sexu-jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen salaketarik egon.</li> <li>Lan-ekipamenduak, aldagelak eta komunelai buruzko kexak daude.</li> <li>Lanpostu batzuen arriskuak ez dira egoki aztertu.</li> </ul>

KATEGORIA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
ERAKUNDE KULTURA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalaren berdintasun-neurriekiko gogobetetze-maila altua da.</li> <li>• Langileen gehiengoa ados dago erakundean emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana abian jartzearekin.</li> <li>• Oiartzungo Udalean berdintasun-egoera beste erakunde eta enpresa batzuena baino hobea dela baloratzen da.</li> <li>• Udalak intraneta dauka, non informazioa biltzen den.</li> <li>• Lan-giroa orokorrean ontzat baloratzen da.</li> <li>• Plantillak bere lanarekin duen motibazioa altua da</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeen %42k eta gizonen %27k genero estereotipoek erakundean emakumeek dituzten lan baldintza eta aukeretan eragina dutela uste dute.</li> <li>• Postu batzuetan zereginak sexuaren arabera bereizita daude.</li> <li>• Pertsona batzuentzat lan-giroa aldatu egin da kexaren bat aurkeztu dutenetik.</li> <li>• Komunikazio arazoak nabarmentzen dira eta entzuteko espazio irekien beharra.</li> <li>• Harrera protokolorik ez dago.</li> </ul>

### 3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. barne plana


#### 3.1. Hitzartzen duten alderdiak

Berdintasunerako planaren negoziazio batzordeak garatu du Oiartzungo Udalaren emakumeen eta gizonen I. barne planaren edukia eta 2025eko martxoan onartu da Udal Osoko Bilkuran.



#### 3.2. Langile-, lurrealde- eta denbora-eremua

Oiartzungo Udalaren langile guztiei aplikatuko zaie emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. barne plana. Plan honek 2025-2028 bitarteko indarraldia izango du.



Oiartzungo Udalarentzat da aplikagarri berdintasunerako plan hau, eta beraz, **langile guztiak biltzen ditu, baita zuzendaritzako kideak ere**. Halaber, lantoki guztietan aplikatuko da.

Plan honen helburuak, adostutako neurrien bidez lortu ahal izateko, **2025etik 2028ra bitarte gauzatuko dira**.

#### 3.3 Egitura

Oiartzungo Udalaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. barne plana (2025-2028) 3 esku-hartze lerroren inguruan egituratzen da (bakoitza, helburu bati lotuta).

Diagnostikoaren ondorioetan jasotako indarguneak eta ahulguneak aztertuta, berdintasunerako esku-hartzeari lehentasuna eman zaio 3 lan-ildo hauetan:

- **L1. BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA.** Kudeaketa prozesuak, genero ikuspegitik eta parte hartzeko prozesuen bidez, berrikustea.
- **L2. LAN-OSASUNA.** Genero ikuspegitik lan espazio inklusiboak eta osasunariak bermatzea.
- **L3. LIDERGO FEMINISTA.** Berdintasunerako lidergo eraldatzailea bultzatzea.

### 3.4 Planaren hedapena

Lan-ildo bakoitzeko, honako neurri hauek garatuko dira

<b>L1.</b> <b>BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA</b>	1.1. Datu-bilketaren sistematizazioa 1.2. Hautaketa eta sustapena prozedurak genero-ikuspegitik 1.3. Lanpostuen balorazioa genero ikuspegitik 1.4. Prestakuntza prozedura genero ikuspegitik 1.5. Kontziliazio erantzukidea
<b>L2.</b> <b>LAN-OSASUNA</b>	2.1. Arriskuen prebentzio plana genero ikuspegitik 2.2. Emakumeen irisgarritasuna, erosotasuna eta segurtasuna laneko espazio fisikoetan 2.3. Indarkeria matxistei aurre egiten dieten udal langileentzat protokoloa 2.4. Emakumeentzat ekipamendu egokiak
<b>L3.</b> <b>LIDERGO FEMINISTA</b>	3.1. Udaleko emakumezko langileen lidergo-istorioen bilduma 3.2. Udalean lidergo feministak eraldatzailaren kontzeptualizazioa 3.3. Harrera prozesu feminista

Neurri bakoitzeko deskribapen-fitxa bat garatu da, honako atal hauetan:

<b>LAN ILDOA</b>				
<b>NEURRIA</b>				
<b>EKINTZAK</b>				
<b>KRONOGRAMA</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>	<b>2027</b>	<b>2028</b>
<b>ARDURADUNA</b>				
<b>BALIABIDEAK</b>				
<b>GAUZATZE ADIERAZLEAK</b>	<b>OROKORRAK</b>	• Gauzatze-maila	<b>BERARIAZKOAK</b>	
		• Inbertsioa		
		• Parte hartza		

- **EKINTZAK**: neurriak azpibananzen dituzten jarduerak.
- **ARDURADUNA**: neurria gidatzen duen eta haren garapenaren jarraipenean erantzuten duen pertsona edo egitura.
- **KRONOGRAMA**: neurria ezartzeko aurreikusita dagoen urtea edo urteak.

- **BALIABIDEAK:** dedikazio-denbora, baliabide ekonomikoak eta tresnak edo bestelako baliabide materialak.
- **GAUZATZE-ADIERAZLEAK:** neurriaren garapenari lotutako adierazleak.

Neurri guzietan komunak diren **gauzatze-maila adierazleez** gain (amaituta, hasita, jorratu gabe), **inbertsioa** (dedikazio-orduak eta gastu ekonomikoa) eta **parte-hartzea** (garapenean parte hartzen duten emakume zein gizon langileen kopurua), kasu batzuetan neurriaren **berariazkoak** proposatzen dira.

## L1. BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA

Hurrengo orrietan, definitutako lan-ildo honen neurriak jasotzen dira.

LAN ILDOA	BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA			
1.1. NEURRIA	DATU-BILKETAREN SISTEMATIZAZIOA			
EKINTZAK	<p>EAeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 17. artikuluari eta diagnostikoan ageritako beharrari erantzunez, sexuaren arabera bereizitako datuak jaso eta ustiatu eta genero-adierazleak kalkulatu.</p> <p>Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>Sexuaren aldagaia langileen datu-bilketa guztietain sistematikoki sartu.</li><li>Datu eta adierazleei buruzko akordio estrategikoak egin:<ul style="list-style-type: none"><li>Genero-berdintasunaren zer alderdi espezifiko neurtuko diren, nola neurtuko diren eta zein helbururekin erabaki.</li><li>Emakumeen eta gizonen parte-hartzeari buruzko datuak eta adierazleak jaso.</li><li>Adierazleak definitu eta haien kalkulatzeko beharrezkoak diren datuak identifikatu.</li></ul></li><li>Informazioa sartzeko eta ustiatzeko mekanismoa sortu.</li></ul>			
KRONOGRAMA	2025	2026	2027	2028
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"><li>Berdintasunerako teknikaria, informatika saileko arduraduna eta giza baliabideetako arduraduna</li></ul>			
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"><li>80 ordu</li></ul>			
GAUZATZE ADIERAZLEAK	OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"><li>Gauzatze-maila</li><li>Inbertsioa</li><li>Parte hartza</li></ul>	BERARIAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"><li>Genero adierazle berrien kopurua</li></ul>

LAN ILDOA	BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA		
1.2. NEURRIA	HAUTAKETA ETA SUSTAPENA PROZEDURAK GENERO-IKUSPEGITIK		
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hautaketa-prozesua berrikusi, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko <b>legearen 21. artikuluaren mandatuak jaso</b>:           <ul style="list-style-type: none"> <li>Klausula bat, zeinaren bidez, <b>gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 40 baino gutxiago diren Udalaren kidego, maila, eskala eta kategorietan (...).</b></li> <li>Klausula bat, <b>hautaketa-epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua</b> izango dela bermatzeko, guztiak ere trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela.</li> <li>Aurreikuspenak, hautagaiaren lanbide-esperientzia baloratzeko <b>merezimendu-baremoetan</b> honako hauek ere kontuan izan: (1) zenbat denbora egon den hautagaia eszendentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; (2) zenbat denbora eman duen hautagaiak amatasuna eta aitasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketan edo baimenetan; (3) emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman duten genero-indarkeriagatik baimenak baliatzen.</li> <li>Neurri batzuk hautaketa-prozesuak, lanpostuak betetzeko prozesuak eta mailaz igotzeko prozesuak garatzerakoan <b>amatasunari behar bezalako babes</b> emateko bai jaio aurreko aldietai bai jaiotza ondoko aldietai, aintzat hartuta guraso bakarreko familiek kontziliaziorako duten zailtasun erantsia, sexuan oinarritutako diskriminazio-egoerarik ez gertatzeko (...).</li> </ul> </li> <li>Eta <b>18. artikuluaren</b> hurrengoa:           <ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen eta gizonen <b>berdintasunaren arloko programak</b> sustatu eta diseinatzeko eta aholkularitza teknikoa eskaintzeko lanpostuetan, <b>ezagutzei buruzko berariazko betekizunak</b> ezarri.</li> <li>Enplegu publikoko lanpostuak lortzeko eta lanpostuz igotzeko <b>hautaketa-prozesuen gai-zerrendetan</b>, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari eta horrek administrazio-jardueran duen aplikazioari dagozkion edukiak sartu.</li> <li>Berdintasun-teknikarien plazei buruzko kalitate-estandarrak bermatu, sailkapentalde profesionalari, dedikazio eta lanaldi motari eta eskutakako prestakuntzari dagokienez.</li> </ul> </li> <li><b>Hautaketa prozesuen frogan emaitzen jarraipena egin</b> eta, beharrezkoa bada, hobekuntzak proposatu. Froga bakoitz gainditu duten emakumeen eta gizonen ehunekoa (baita gainditu ez dutenena), aurkeztutako hautagaitza guztiekin eta hautaketa-prozesuaren azken emaitza.</li> <li><b>Egiten diren GEEen emaitzen eta ikaskuntzen jarraipena egitea.</b></li> </ul>		
KRONOGRAMA	2025 2026 2027 2028		
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Giza baliabideetako arduraduna</li> </ul>		
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>200 ordu</li> </ul>		
GAUZATZE ADIERAZLEAK	<b>OROKORRAK</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gauzatze-maila</li> <li>Inbertsioa</li> <li>Parte hartza</li> </ul>	<b>BERARIAZKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aztertutako prozesuen kopurua.</li> </ul>

<b>LAN ILDOA</b>	<b>BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA</b>			
<b>1.3. NEURRIA</b>	<b>LANPOSTUEN BALORAZIOA GENERO-IKUSPEGITIK</b>			
<b>EKINTZAK</b>	<p>Balio bereko lanagatik ordainsari berdina izatearen printzipioaren arabera, eta kontuan hartuta lan batek beste batek adinako balioa izango duela benetan agindutako eginkizunen edo zereginen izaerak, lan horretan aritzeko eskatzen diren hezkuntza-, lanbide- edo prestakuntza-baldintzek, beren jardunarekin hertsiki lotutako faktoreek eta lan-baldintzek jarduera horiek baliokideak direnean, hurrengoak egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Lanpostuen balorazioa egitea</b>, balio bereko lanetarako soldatu berdinaren printzipioa kontuan hartuta. Genero-joerak eta/edo sexuagatiko diskriminazioak antzeman diren lanpostuen balorazioa lehenetsiko da berdintasun-printzipioa betetze aldera.</li> <li>• <b>Genero-estereotipoak eta gizarte-balioespen desberdina identifikatzea</b>, lan-eremuei, balioespen-faktoreei eta abarri dagokienez.</li> </ul>			
<b>KRONOGRAMA</b>	<b>2025</b>	<b>2026</b>	<b>2027</b>	<b>2028</b>
<b>ARDURADUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Balorazio-batzordea</li> </ul>			
<b>BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 7.800 euro</li> <li>• 40 ordu</li> <li>• Surt Fundazioak emandako aholkuak</li> </ul>			
<b>GAUZATZE ADIERAZLEAK</b>	<b>OROKORRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gauzatze-maila</li> <li>• Inbertsioa</li> <li>• Parte hartzea</li> </ul>	<b>BERARIAZKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baloratu diren lanpostuen %a</li> </ul>

LAN ILDOA	BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA			
1.4. NEURRIA	PRESTAKUNTZA PROZEDURA GENERO IKUSPEGITIK			
EKINTZAK	<p>EAeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen 18. artikuluari eta diagnostikoan ageritako beharrari erantzunez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udal barne prestakuntza-planak egin eta gauzatu</b>, dauden lanpostuen mota bakoitzerako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan beharrezkoak diren gaitasunak kontuan hartuta.</li> </ul> <p>Aztertzen ari garen <b>prestakuntza-edukien artean, hauek identifikatu dira:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Lidergo-estiloak eta autoritatea, generoari dagokionez.</li> <li>○ Laneko arriskuen prebentzioa genero-ikuspegitik.</li> <li>○ Autodefentsa feminista.</li> <li>○ Eskubideak eta arauen aldaketak.</li> <li>○ Maskulinitateak</li> <li>○ Berdintasunerako klausulak kontratazioetan.</li> <li>○ Sexu jazarpen protokoloan trebakuntza: (Ikerketa batzordearen trebakuntza, langile berriei...)</li> <li>○ Indarkeria matxistetan trebakuntza itinerarioaren diseinua.</li> </ul> <p>Lehentasuna emango zaien kolektiboen artean, negoziazio kolektiboan parte hartzen duten pertsonak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Genero-ikuspegia txertatuko da emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa ez den prestakuntzan.</b> Horretarako: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza-premiak identifikatzean, tradizionalki feminizatuta egon diren kolektiboen premiak (administrarienak, esaterako) kontuan hartzen direla bermatu.</li> <li>• Kanpoko profesionalei prestakuntza-proposamenak eskatzean, genero-klausulak sartu, hala nola: edukietan genero-pilulak sartzea, hala badagokio; berdintasun-desberdintasunak eta -urrerapenak bistaratzea, hala badagokio; hizkuntzan erabilera ez-sexista egitea materialetan eta ahozko irakaskuntzan; jarraipen-adierazleak badaude, sexu-aldaagaia sartzea eta ustiatzea, eta adierazle espezifiko baten aukera baloratzea, prestatzileen artean emakumeen eta gizonen arteko oreka sustatzea, bai eta batzuek eta besteek ematen dituzten ikasgaietan rolak haustea ere, etab.</li> <li>• Prestakuntza-eskaintzak aztertuko dira eta dagozkion egokitzapenak egingo.</li> <li>• Sistematizatzeko, gai horiek prestakuntza-prozeduran sartu.</li> </ul> </li> </ul>			
KRONOGRAMA	2025                    2026                    2027                    2028			
ARDURADUNA	• Berdintasunerako teknikaria eta giza baliabideetako arduraduna			
BALIABIDEAK	• 8.000 euro • 160 ordu			
GAUZATZE ADIERAZLEAK	OROKORRAK	• Gauzatze-maila	BERARIAZKOAK	• Berdintasun ikastaroen kop/urte

		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inbertsioa</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasun ikastaroen balorazioa (E/G)</li> <li>• Berdintasun-pilulak jasotzen dituzten prestakuntza-ekintzen %a</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartza</li> </ul>		

LAN ILDOA	BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA			
1.5. NEURRIA	KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA			
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontziliazio erantzukidearen inguruan <b>azterketa sakontzea</b>:           <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Norberaren bizitza eta lana uztartzeari buruz zein informazio bildu behar den identifikatu. Adibidez, kontziliazio-neurriak, zaittasunak eta beharrak, zaintza-ardurak (familiakoak eta familiakoak ez direnak). Generoaz gain, informazioa ustiatzeko garaian kontuan hartu beharreko beste datu eta aldagai batzuk zehaztu, adibidez adina edo lanpostu mota.</li> <li>○ Kontziliazioaren inguruan dauden usteak identifikatu.</li> <li>○ Lanaldi-murriketekiko edo beste kontziliazio neurriekiko bateraezintasunak aztertu.</li> </ul> </li> <li>• Kontziliazio <b>hobekuntza-proposamen bat diseinatzea</b>. Esku hartzeko estrategiak eta neurriak diseinatzea, erakundearen antolamenduarekin eta jarduerarekin jasangarriak izan daitezen.           <ul style="list-style-type: none"> <li>○ 2024an egindako diagnostikoan jasotako ideiak aztertza.</li> <li>○ Ordutegiaren berrantolaketa lantza.</li> <li>○ Beste erakunde batzuen kontziliazio erantzukiderako estrategien erreplikagarritasuna aztertza. Besteak beste, lanpostu maskulinizatuei eta/edo gizonak interpelatzen dituzten lanpostuei buruzko esperientziak jaso eta baloratu.</li> <li>○ Antolaketa neurri berriak aztertu (txandakako egutegiak, e.a.).</li> </ul> </li> <li>• Kontziliazioari buruzko <b>galderetarako kanala ireki</b>.</li> </ul>			
KRONOGRAMA	2025	2026	2027	2028
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideetako arduraduna</li> </ul>			
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 800 euro.</li> <li>• 300 ordu</li> </ul>			
GAUZATZE ADIERAZLEAK	OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gauzatze-maila</li> </ul>	BERARIAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proposatutako neurri berrien eta/edo egokituen kopurua.</li> </ul>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inbertsioa</li> </ul>		
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartza</li> </ul>		

## EMAITZA ADIERAZLEAK

Hurrengo taulan, lan-ildo horren edukiarekin zerikusia duten adierazleen balioak jasotzen dira, diagnostikoan lortutakoak, barne-planaren ezarpen-aldiaren amaieran izandako aldaketa neurtu eta baloratu ahal izateko.

DIAGNOSTIKOAREN ADIERAZLEAK, ZEINETAN ILDO HONEK ERAGINA DUEN	DIAGNOSTIKOAREN BALIOA (2023/12/31n jasotako datuak)
• Plantillan egun dauden emakumeen %-a	%51
• Mendekotasunen bat duten adinez nagusien ardura duten emakume/gizonen presentzia-tasa erlatiboa %-a.	Ez dago daturik
• Funtzionarioen hautaketa prozesuek sexu-genero berdintasuna bermatzen dutela uste dutenen %-a	emakumeen %77/gizonen %75
• Barne-sustapen prozesuek sexu-genero berdintasuna bermatzen dutela uste dutenen %a.	emakumeen %65/gizonen %70
• Emakumeek betetako maila estrategiko-taktikoko lan-postuen %-a	%43
• Prestakuntza jaso duten langileen %-a	emakumeen %100/gizonen %100
• Barne prestakuntza plana izatea.	Ez
• Lanpostuen balorazioa izatea	Ez
• Telelanerako aukera izatea	Ez

Adierazle horietan ez ezik, lan-ildoak eragina izango du IA\_Berdintasuna atalean jasotako indargune eta ahulgune hauetan ere:

- Kontziliazioa ulertzeko modu desberdinak daude plantillan, eta horrek batzuetan gaizki ulertzera eramatzen du eta gatazka-iturri izan daiteke.
- Lanpostu batzuek ezin dute ordutegi-malgutasunik izan, eta lanpostu horietan daudenek (batez ere emakumeek) kontziliazio-arazoei aurre egin behar diente.
- Langile guztiekin ez dituzte udalean kontziliaziorako dauden neurriak ezta haien eskubideak ezagutzen.

## L2. LAN-OSASUNA

Hurrengo orrietan, definitutako lan-ildo honen neurriak jasotzen dira

LAN ILDOA	LAN-OSASUNA			
2.1. NEURRIA	ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA GENERO IKUSPEGITIK			
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Tresna berrikusi ikuspegi feministak txertatzeko eta prebentzio neurri batzuk sartu, lan-giro osasungarria, errespetuzkoa eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duena bultzatzeko.</li> <li><b>Sexu-askatasunaren berme</b> integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 12. artikuluak adierazten duen bezala, arriskuen prebentzioan sexu-indarkeria sartu.</li> <li><b>Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena eragin dezaketen jarduera edo jokabide sexistak</b> identifikatu, emakume langileekin egindako lan-saioen bidez eta/edo langile guztientzako online formulario baten bidez.</li> <li>Osasunaren zaintzaren bidez, eta batez ere <b>osasun-inkesta eta -azterketetan, sexu jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arriskua eta bestelako arriskuak</b> identifikatzea ahalbidetuko duten osasun adierazleak sartzea.</li> <li><b>Prebentzioko zerbitzuari plegu teknikoetan jasotako betekizunak</b> aztertzea eta gauzatzen direla bermatzea. Beharrezko bada, neurri zuzentzaileak hartzea.</li> </ul>			
KRONOGRAMA	2025	2026	2027	2028
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasunerako teknikaria eta giza baliabideetako arduraduna</li> </ul>			
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prebentzioko enpresa (Lautalan SL)</li> <li>5.000 euro</li> <li>180 ordu</li> </ul>			
GAUZATZE ADIERAZLEAK	OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gauzatze-maila</li> <li>Inbertsioa</li> <li>Parte hartza</li> </ul>	BERARIAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Landu diren arrisku berrien kopurua</li> </ul>

LAN ILDOA	LAN-OSASUNA								
2.2. NEURRIA	EMAKUMEEN IRISGARRITASUNA, EROSOTASUNA ETA SEGURTASUNA LANEKO ESPAZIO FISIKOETAN								
EKINTZAK	<p>10/2022 Lege Organikoak, irailaren 6koak, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoak espazio publikoak seguruak izan daitezen 16. artikuluan aipatzen duen betebeharri heldu: Estatuko Administrazio Orokorrak eta gai horretan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek lagunza emango diete tokierakundeei genero-ikuspegidun hirigintza- eta segurtasun-politikak gara ditzaten, udalerrietako espazio publikoak emakume eta haur guztientzat seguruak eta irisgarriak izango direla bermatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Azterketa nola egingo den erabaki:</b> zein azpiegitura aztertuko diren, nortzuk parte hartuko duten (sexuari, lanpostuei eta zerbitzuei dagokionez adibidez), zein teknika erabiliko diren (inuesta, iritzi-taldeak, behaketa...). <b>Etxez etxeko</b> zerbitzuko langileen egoera espezifikoki aztertuko da.</li> <li>• Hautatuko tekniken bitartez, <b>puntu kritikoak bildu</b>.</li> <li>• Bildutako puntu kritikoak ikuspegi feministatik <b>aztertu eta lehentasunezkoak identifikatu</b>.</li> <li>• Genero ikuspegitik lehenetsitako puntu kritikoak murriztu, ezabatu edo ekiditeko <b>esku-hartzeak landu</b>.</li> </ul>								
KRONOGRAMA	<table border="1"> <thead> <tr> <th>2025</th><th>2026</th><th>2027</th><th>2028</th></tr> </thead> </table>	2025	2026	2027	2028				
2025	2026	2027	2028						
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Segurtasun eta osasun batzordea</li> </ul>								
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Puntu kritikoen maparen metodologia</li> <li>8.000 euro</li> <li>120 ordu</li> <li>Beharrezko obrak (zehazteke)</li> </ul>								
GAUZATZE ADIERAZLEAK	<table border="1"> <tr> <td rowspan="3">OROKORRAK</td> <td>• Gauzatze-maila</td> <td rowspan="3">BERARIAZKOAK</td> <td>• Aztertutako espazio kop.</td> </tr> <tr> <td>• Inbertsioa</td> <td>• Egindako esku-hartzeko kop.</td> </tr> <tr> <td>• Parte hartza</td> <td></td> </tr> </table>	OROKORRAK	• Gauzatze-maila	BERARIAZKOAK	• Aztertutako espazio kop.	• Inbertsioa	• Egindako esku-hartzeko kop.	• Parte hartza	
OROKORRAK	• Gauzatze-maila		BERARIAZKOAK		• Aztertutako espazio kop.				
	• Inbertsioa				• Egindako esku-hartzeko kop.				
	• Parte hartza								

LAN ILDOA	LAN-OSASUNA								
2.3. NEURRIA	<b>INDARKERIA MATXISTEI AURRE EGITEN DIETEN UDAL LANGILEENTZAT ARRETA SISTEMA</b>								
EKINTZAK	<p>1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koan, genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoak, 21, 24, 25, 26. artikuluetan aipatzen dituen betebeharrei heldu eta protokoloa egiterakoan honako gaiak landu:</p> <p><b>Lan-baldintzak egokitzea eta eskubideak bermatzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Biktimen lan-merkatuan sartza sustatu eta lan-baldintzak egokitu (lanaldi-murriketak, ordutegiaren berrantolaketa, lantokiaren aldaketa, segurtasun eta osasun-neurriak).</li> <li>• Lan-baldintzen aldaketak (ordutegia, lantokia, telelana) erasotzailearekin harremana saihesteko eta errekuperazioa errazteko.</li> </ul> <p><b>Babes soziala eta juridikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gehienez 6 hilabeteko ordaindutako baimena (luzatzeko aukerarekin) aurreikusi, osasun-tratamenduetarako, laguntza psikologikorako edo izapide juridikoetarako.</li> <li>• Langilearen lan eskubide eta sozialei buruzko aholkularitza juridikoa eskaini.</li> </ul> <p><b>Osasuna eta segurtasuna</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanpostua edo lantokia aldatzea segurtasuna bermatzeko eta arrisku-egoerak saihestea bermatu.</li> <li>• Erakundearren osasun-programetan laguntza psikologikoa eskaintzen bada, indarkeria matxista jasan izana zerbitzua jasotzeko arrazoia izatea.</li> </ul> <p><b>Berrintegrazio segurua</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanera modu gradualean itzultzeko neurriak hartzea, ingurune segurua bermatzu.</li> </ul>								
KRONOGRAMA	<table border="1"> <tr> <td>2025</td> <td>2026</td> <td>2027</td> <td>2028</td> </tr> </table>	2025	2026	2027	2028				
2025	2026	2027	2028						
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunerako teknikaria eta giza baliabideetako teknikaria</li> </ul>								
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 80 ordu</li> </ul>								
GAUZATZE ADIERAZLEAK	<table border="1"> <tr> <td rowspan="3">OROKORRAK</td> <td>• Gauzatze-maila</td> <td rowspan="3">BERARIAZKOAK</td> <td>• Aplikatu diren protokoloan jasotako neurrien %a</td> </tr> <tr> <td>• Inbertsioa</td> <td></td> </tr> <tr> <td>• Parte hartzea</td> <td></td> </tr> </table>	OROKORRAK	• Gauzatze-maila	BERARIAZKOAK	• Aplikatu diren protokoloan jasotako neurrien %a	• Inbertsioa		• Parte hartzea	
OROKORRAK	• Gauzatze-maila		BERARIAZKOAK		• Aplikatu diren protokoloan jasotako neurrien %a				
	• Inbertsioa								
	• Parte hartzea								

LAN ILDOA	LAN-OSASUNA
2.4. NEURRIA	EMAKUMEENTZAT EKIPAMENDU EGOKIAK
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Laneko tresna eta jantziak</b> emakumeei egokitu, euren morfologia kontuan izanik eta genero estereotipoak indartzen ez dituztela bermatuz. Besteak beste, etxez etxeko langileen beharrei erantzun.</li> <li><b>Udal instalazioen</b> egokitasunari buruzko hausnarketari dagokionez, bi ideia nagusi: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Komunen irisgarritasuna udal eraikinetan bermatu.</li> <li>○ Emakumeentzat kalitatezko nahikoa aldagela eskaini.</li> </ul> </li> <li>Lanpostuak aztertzea <b>mugikortasun-beharrei</b> dagokienez, eta lortutako emaitzen arabera irtenbideak proposatu.</li> </ul>
KRONOGRAMA	2025 2026 2027 2028
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Arkitekto teknikoa</li> </ul>
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>150 ordu</li> <li>Beharrezko obrak (zehazteke)</li> </ul>
GAUZATZE ADIERAZLEAK	<div style="display: flex; align-items: center;"> <div style="flex: 1; text-align: center;"> <p><b>OROKORRAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Gauzatze-maila</li> <li>● Inbertsioa</li> <li>● Parte hartza</li> </ul> </div> <div style="flex: 1; text-align: center;"> <p><b>BERARIAZKOAK</b></p> </div> <div style="flex: 1; text-align: left;"> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Egokitzen diren: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Lan tresnen kop.</li> <li>○ Komunen kop.</li> <li>○ Aldagelen kop.</li> </ul> </li> </ul> </div> </div>

## EMAITZA ADIERAZLEAK

Hurrengo taulan, lan-ildo horren edukiarekin zerikusia duten adierazleen balioak jasotzen dira, diagnostikoan lortutakoak, barne-planaren ezarpen-aldiaren amaieran izandako aldaketa neurtu eta baloratu ahal izateko.

DIAGNOSTIKOAREN ADIERAZLEAK, ZEINETAN LERRO HONEK ERAGINA DUEN	DIAGNOSTIKOAREN BALIOA (2023/12/31n jasotako datuak)
• Sexua dela-eta baztertuta sentitu diren langileen kopurua	20 emakume/3 gizon
• Sexu-jazarpena jaso duten langileen kopurua	8 emakume/2 gizon
• Sexuan oinarritutako jazarpena jaso duten langileen kopurua	11 emakume/1 gizon
• Udalean txiste eta iruzkin matxistak ohikoak direla uste duten langileen %a	emakumeen %15/gizonen %23
• Lan karga, lan baldintzakin bat datorrela uste duten pertsonen %a	emakumeen %56/gizonen %39
• Lanarekiko motibazioari buruzko batez beste puntuazioa	emakumeek 7,85/gizonek 7,61

Adierazle horietan ez ezik, lan-ildoak eragina izango du IA\_Berdintasuna atalean jasotako indargune eta ahulgune hauetan ere:

- Lan-ekipamenduak, aldagelak eta komuniei buruzko kexak daude.
- Lan postu batzuen arriskuak ez dira egoki aztertu.

### L3. LIDERGO FEMINISTA

Hurrengo orrietan, definitutako lan-ildo honen neurriak jasotzen dira

LAN ILDOA	LIDERGO FEMINISTA			
3.1. NEURRIA	UDALEKO EMAKUMEZKO LANGILEEN LIDERGO-ISTORIOEN BILDUMA			
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udaleko emakume erreferenteen istorioak eta esperientziak jaso, non partekatuko duten nola gidatu duten proiektu bat, talde bat, nortzuk izan diren haien erreferenteak, zalantzak, lorpenak, etab.</li> <li>Historiak aztertu, lidergoaren ezaugarriak bereziki kontuan hartuta.</li> <li>Ondorioak langileen artean zabaldu (newslettera, elkarrizketa gurutzatuak lidergoari buruzko prestakuntza batean, podcasta...).</li> </ul>			
KRONOGRAMA	2025	2026	2027	2028
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasun batzordea</li> </ul>			
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>5.000 euro</li> <li>60 ordu</li> </ul>			
GAUZATZE ADIERAZLEAK	OROKORRAK	• Gauzatze-maila	BERARIAZKOAK	• Istorien kopurua
• Inbertsioa				
• Parte hartza				

LAN ILDOA	LIDERGO FEMINISTA			
3.2. NEURRIA	UDALEAN LIDERGO FEMINISTA ERA DATZAILEAREN KONTZEPTUALIZAZIOA			
EKINTZAK	<p>3.1 neurrian parte hartu duten pertsonekin, <b>gogoeta egin</b> honako gai hauei buruz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Nolako litzateke lidergo “ideala”?</li> <li>• Ba al da lidergo femeninorik?</li> <li>• Eta lidergo feministak?</li> <li>• Zein eginkizun du udalak bere sustapenean?</li> <li>• Lidergoari buruz, zertaz ez da hitz egiten?</li> <li>• Nola joan lidergo feministak baterantz?</li> </ul> <p>Deskribapen bat, ezaugarriak, lortu nahi diren emaitzak... adostu.</p> <p>Lidergoari buruzko prestakuntza-ekintzetan langileekin partekatzea.</p>			
KRONOGRAMA	2025	2026	2027	2028
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasun batzordea</li> </ul>			
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 5.000 euro</li> <li>• 120 ordu</li> </ul>			
GAUZATZE ADIERAZLEAK	OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gauzatze-maila</li> <li>• Inbertsioa</li> <li>• Parte hartzea</li> </ul>	BERARIAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Helarazten zaizkien langileen ehunekoak, sexuaren arabera bereizita</li> </ul>

LAN ILDOA	LIDERGO FEMINISTA			
3.3. NEURRIA	HARRERA PROZESU FEMINISTA			
EKINTZAK	<p>Zaintzaren, ahalduntzearen eta kolektiboa sortzearen ikuspegia sartu nahi da langile berriei harrera egitean. Baja luze edo eszedenzia baten ondoren <b>lanera bueltatzen diren langileentzako berriz harrera</b> ere egitea. Hona hemen horretarako aurreikusten diren ekintzetako batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Harrera egiten duten pertsonen profilak berrikustea</b>, genero-rolak eta estereotipoak kontuan hartuta.</li> <li>• Gai ezberdinetako <b>erreferenteak aipatu eta haiekin kontaktatzeko modua erraztu</b>.</li> <li>• Harrera-eskuliburuan <b>barne berdintasun-planari eta berdintasunerako eta indarkeriaren prebentziorako kudeaketa-tresnei buruzko informazioa egunerau</b> (jazarpen protokolo, kontziliazio-araudia eta neurriak...).</li> <li>• Ekarpenak egiteko <b>entzute aktiboko espazioak kanal eta espazioak ireki</b>.</li> </ul>			
KRONOGRAMA	2025	2026	2027	2028
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza baliabideetako arduraduna</li> </ul>			
BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 80 ordu</li> </ul>			
GAUZATZE ADIERAZLEAK	OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gauzatze-maila</li> <li>• Inbertsioa</li> <li>• Parte hartza</li> </ul>	BERARIAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jasotako ekarpen kopurua</li> </ul>

## **EMAITZA ADIERAZLEAK**

Hurrengo taulan, lan-ildo horren edukiarekin zerikusia duten adierazleen balioak jasotzen dira, diagnostikoan lortutakoak, barne-planaren ezarpen-aldiaren amaieran izandako aldaketa neurtu eta baloratu ahal izateko

<b>DIAGNOSTIKOAREN ADIERAZLEAK, ZEINETAN LERRO HONEK ERAGINA DUEN</b>	<b>DIAGNOSTIKOAREN BALIOA (2023/12/31n jasotako datuak)</b>
• Berdintasunaren arloan enpresarekin gogobeteta egotea. Emandako batez besteko puntuazioa.	emakumeek 7,73/gizonek 8,06/Ez binarioek 5,00
• Lanarekiko motibazioari buruzko batez beste puntuazioa	emakumeek 7,85/gizonek 7,61
• Harrera protokoloa izatea	Ez
• Genero-estereotipoek Udalean emakumeek dituzten lan-baldintza eta aukeretan eragiten dutela uste dutenen %-a	emakumeen %42/gizonen %27
• Gizonen eta emakumeen berdintasunerako plana abian jartzearekin ados daudenen %-a	emakumeen %90/gizonen %91
•	

Adierazle horietan ez ezik, lan-ildoak eragina izango du IA\_Berdintasuna atalean jasotako indargune eta ahulgune hauetan ere:

- Herritarren parte batek ez du onartzen plantillako emakumeen agintea.
- Komunikazio arazoak nabarmentzen dira eta entzuteko espazio irekien beharra.

### 3.5. Kronograma

	2025	2026	2027	2028
<b>1. BERDINTASUNERAKO KUDEAKETA EREDUA</b>				
1.1 Datu-bilketaren sistematizazioa				
1.2 Hautaketa eta sustapena prozedurak genero-ikuspegitik				
1.3 Lanpostuen balorazioa genero ikuspegitik				
1.4 Prestakuntza prozedura genero ikuspegitik				
1.5 Kontziliazio erantzukidea				
<b>2. LAN-GIRO OSASUNGARRIA</b>				
2.1 Arriskuen prebentzio plana genero ikuspegitik				
2.2 Emakumeen irisgarritasuna, erosotasuna eta segurtasuna laneko espazio fisikoetan				
2.3 Indarkeria matxistei aurre egiten dieten udal langileentzat protokoloa				
2.4 Emakumeentzat ekipamendu egokiak				
<b>3. BERDINTASUNEZKO ERAKUNDE KULTURA</b>				
3.1 Udaleko emakumezko langileen lidergo-istorioen bilduma				
3.2 Udalean lidergo feministea eraldatzailaren kontzeptualizazioa				
3.3 Harrera prozesu feminista				

### 3.6 Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako I. barne planaren programazioa, jarraipena eta ebaluazioa

#### Sustapena eta jarraipena

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren I. barne planaren betetze-mailaren jarraipena etengabe egingo da. Horretarako, orain arteko negoziazio batzordeak **jarraipen batzorde** izena hartuko du, eta plana egiteko prozesuan parte hartu duten pertsona berek osatuko dute eta honako eginkizun hauek hartuko ditu bere gain:

- Oiartzungo Udalaren berdintasunerako I. barne planean adostutako neurriak betetzen direla zaintzea.

- Oiartzungo Udalaren berdintasunerako I. barne planaren inguruan langileengan sortzen diren zalantzei buruz aholkatzea eta horiek argitzea.
- Oiartzungo Udalaren berdintasunerako I. barne planean aldaketak proposatzea edo neurri eta jarduera berriak sartzea.
- Berdintasunerako I. barne planaren komunikazio-, jarraipen- eta ebaluazio-lanak egitea.

Planaren iraunaldia amaituta haren **ebaluazioa** egingo da. Horretarako, planaren gauzatze maila aztertuko da urtero egindako jarraipen txostena eta definitutako adierazleak aintzat harturik. Gainera, ezarpen-prozesuan aurkitutako zailtasunak eta lortutako lorpenak erraztu dituzten faktoreak identifikatuko dira.

Berdintasunerako I. barne plana ezartzeko aurreikusitako epea amaitu eta gero, emakumeen eta gizonen berdintasun-egoeran lortutako aldaketa neurtea ahalbidetzen dute emaitza-adierazleek. Adierazle horiek zenbakizkoak izan daitezke (hazkunde unitarioak, ehunekoak, tasak, etab.) edo kualitatiboak (dagokion egoeraren aurreko xedeko langileen pertzepzioan edo asetasun-mailan oinarrituak).

## Urteko programazioak

Plana indarrean dagoen urte bakoitzean, urteko plan operatiboak edo programazioak egingo dira, aurrera eramango diren neurriak eta ekintzak zehazten joateko. Urteko programazio horiek **jarraipen batzordearen** urte hasierako bileran adostuko dira.

### 3.7 Aldatzeko prozedura

Dokumentu honen aplikazioan, jarraipenean, ebaluazioan edo berrikuspenean desadostasunik sortuz gero, alkatearengana joko da, proiektuaren arduradun nagusi gisa.